

Saltokia berritzen milioi bat eurotik gora eraili dira

EROSKI-K ORAIN 45 "ZUREKIN" SALTOKI DITU BIZKAIAN, ZALLAKO HIPERMERKATUA BERRITUTA

- **Zazpi lanpostu sortu dira, eta guztira 88 profesionaleko taldea osatu da**
- **Berrikuntza honekin, dagoeneko 45 Zurekin denda ditu EROSKI Bizkaian, eta beste hogeita hamar aurten eraldatzeko asmoa du**
- **Arreta pertsonala era progresiboan ari da lantzen, eskaintzak eta promozioak Bezero-Bazkide bakoitzera egokituta EROSKI Klub txartelaren bidez; dagoeneko, 366.000 Bezero-Bazkide baino gehiago ditu Bizkaian**

Zalla, 2016ko maiatzaren 12a.- [EROSKI](#)k Zallako hipermerkatua eraldatu du (El Baular auzoa, 13), Zurekin eredu komertzial berrira egokitzeko. Hauek dira eredu horren ardatzak: freskoen espezializazioa, kontsumitzailearen aukera askatasuna eta tokiko produktuen aldeko apustu sendoa. Eraldaketa honekin, dagoeneko 45 saltoki ditu EROSKI Bizkaian Zurekin eredu komertzial berrira aldatuta; guztira, hamar hipermerkatu eta 125 supermerkatu osatzen dute sare komertziala.

Zallako hipermerkatua berritzeko, milioi bat eurotik gora inbertitu dira. Saltokian 88 langile daude, zazpi lanpostu sortu baitira denda Zurekin eredura eraldatuta; izan ere, eredu horrek bezeroarenganako arreta pertsonalagoa ematen du.

EROSKI Bizkaiko sarea eraldatzen guztira egin duen inbertsioa dagoeneko 17 milioi eurokoa baino handiagoa da, eta horrek 200 lanpostutik gora sorrarazi ditu. Aurten, gainera, beste hogeita hamar saltoki berritzeko asmoa du EROSKI Bizkaian.

Sasoiko janari freskoen aldeko apustua

Eraldatze lanetan, batez ere freskoetan jarri dute ardatza; erabat berritu dute, balioa emateko produktu sorta zabalari eta, hartara, kontsumitzaileak aukera handiagoa izateko eta, oro har, tokiko sasoi elikagaien aldeko apustua indartzeko. Besteren artean, tokiko produktu eta hornitzaile hauek dira nabarmentzekoak: frutak eta barazkiak (Jose Luis Miguel Ietxugak), haragia (Tathe saltxitxak eta hanburgesak), urdaikia (Arceniaga hestebeteak, Eretxazpi S. kooperatiboaren ardi gazta, Lombera de Carranza txorizoa eta tripakiak), esnekiak (Lactebal, Mantequeras Santi), gozokiak (Matxako gozoak eta pastak), edaria (Aretxaga txakolina, Señorío de Otxaran, Beldui eta Gurrutxaga eta Txurrut bermuta).

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

"Gure saltokiak beren inguruan ekoizten diren jangaiak merkaturatzeko plataforma irekiak dira. Kontsumitzaileari modu eskuragarrian jartzen dizkiogu bere eskualdeko elikagaiak, geure eguneroko ohituretan txertatzeko, eta aldi berean, ekoizpen ehuna askotarikoa duen nekazaritzako elikagaien sektorea indartzen dugu, gakoa baita haren iraunkortasunerako eta ekonomiari, kulturari, eta ingurunearen ingurumen kalitateari ekarpena egiteko", azaldu du hipermerkatuko gerenteak, Nerea Esturok.

'Zurekin' denden salmentak %7 igotzen dira

Dagoeneko kooperatibak bultzatzen duen Zurekin eredu komertzial berrira eraldatuta dauden dendek %7 inguru igotzen dituzte beren salmentak, gehienbat janari freskoen atalak handitu egiten direlako.

Berrikuntzen artean, nabarmentzekoa da arreta pertsonalaren alde egin dela. "Harakina jarri dugu harategian, eta laban mozketak egiten ditugu. Lurrindegian eta parafarmazian, berriz, aholkulariak jarri ditugu. Horretaz gainera, langileek 750 orduko prestakuntza jaso dute, bezeroari aholkuak emateko gaitasuna hobetzeko", aipatu du gerenteak. Gainera, dendan ematen den arreta pertsonala aldatuz joango da EROSKI Klub txartelaren bitartez bezero-bazkideentzat egokitutako eskaintzekin eta promozioekin. Kooperatibaren fidelizazio programak 366.000 bezero-bazkide baino gehiago ditu dagoeneko Bizkaian.

Gainera, hipermerkatu berrituak azken berrikuntza teknologikoak dakartza efizientzia energetikoa hobetu eta ingurumenean duen eragina gutxitzeko.

Horretaz gain, EROSKIren denda sare osoan bezala, Zallako hipermerkatuan "Ez alferrik galdu" konpromisoa lantzen ari dira, kontsumitzeko moduan dagoen elikagairik ez botatzeko, baizik eta dendaren inguruko gizarte erakundeei emateko. Iaz, EROSKIren Bizkaiko saltokietan 383 tona janari baino gehiago eman ziren elkartasun programa horren bidez; hori 230 familiaren janari kontsumoaren parekoa da.

600 milioi eurotik gorako erosketak EAEn

EROSKI liderra da tokiko produktuen salmentan: euskal ekoizleen 9.500 produktutik gora dauzka. 2.000 euskal hornitzaile ingururekin aritu zen iaz kooperatiba lanean, eta 613 milioi eurotik gorako erosketak egin zizkien urte osoan; hala, erosketen %60 nekazaritzako elikagaien sektoreari egin zizkion.

Elikadura osasungarriaren promozioa

EROSKI lan handia egiten ari da elikadura osasungarriaren alde; horregatik jarri du "Elikadura Ekologikoa eta Dietetikoa" atal espezifikoa, 330 erreferentzia ingururekin. Era berean, sortaren estrategian ere nabaritu da saltokia eredu komertzial berrira eraldatu izana; orain handiagoa da sorta txokolatearen, kafe eta infusioen eta pasten

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

atalean. Hala, saltokietako sortak balio hobea du, eta bezeroaren egiazko beharrak betetzen dira.

Eraldatu berri den hipermerkatua orain dela hamasei urte jarri zen martxan. EROSKI Bizkaiko herri horretan duen sare komertzialaren barnean, gasolindegi bat eta Forum Sport kirol materialeko denda bat ere sartzen dira.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)